



Lehen bertso eskoletako ikasleak Manuel Uztapide bertsolariarekin, 1983ko maiatzaren 14an.

Bi hilabetera hil zen maisu zaharra, ekainaren 8an.

Ikasleen artean: Jon Eizmendi, Felix Iñurrategi, Jon eta Aitor Sarasua, Joxe Mari Mujika "Anatx", Xabier Euzkitze, Arantzazu Loidi, Iñaki Izarrelaia eta Danel Goikolea.

Txirritarekin kantatu zuen Uztapidek, ondoren Basarriarekin, eta bertso eskolak ere ezagutu zituen. Garaian garaiko ikuspegira egokitzen jakin zuen.

Bertso eskolek 25 urte Egungo mugimenduaren klabeak sorreran daude

Lehen bertso eskolek mende laurdena bete dute. Batzuek jada egin dituzte ospatzeko festak, eta Goierrikoa aurten ari da burubelarri horretan. Herri mugimenduen artean hain indartsu eta bizirik jarraitzen duenak sorreratik jarri zituen egungo egitura eta metodologiaren oinarriak: bertso eskola bakoitza desberdina eta independentea izango zen, eta era berean sarean antolatutakoa. Taldea sortzea, almazena bertso zaharrez betetzea eta testuinguru naturalean kantatzea izango ziren metodologiaren ardatzak, eta bertsolaritzari buruzko teorizazioak ez dira kasik aldatu 25 urteotan. Sortzaileei etorkizun ikuspegi handia eta planifikazio gaitasuna aitortu behar zaie. Bestalde, data garrantzitsu hau ospatzeko Sareko ARGIAk, xehetasunez beteriko gune berezia zabaldu du Garialea bertso blokaren barruan.

FRANCOREN azken urteak eta trantsizioko lehen urteak ziren, eta herrietan euskara zein bertso giroa oso apaldua zegoela gogoratzen dute bertso eskolen sortzaileek, bai Ordizian (Gipuzkoa), Bilbon, Leintz bailaran (Gipuzkoa) zein Hernanin (Gipuzkoa). Patxi Goikolea Almen bertso eskolaren (Aretxabaletan, Gipuzkoa) sortzaileetakoak garai hartako Leintz bailara horrela definitzen du: “Teknologia eta burdin kontuez asko genekien, baina bertsolari mundua oso ezezaguna zen”. Aldiz, isileko lanean jardundako euskalgintzaren aldeko mugimendua bero zegoen. Juanjo Uriá Hernaniko bertso eskolaren sortzaileetakoak da, eta Franco osteko lehen alkatea Hernanin: “Euskalgintzaren egoerarekin kezkatuta zegoen jendeak zerbait egin nahi zuen euskara, kultura esparruan... Mugimendu horren guztiaren atal bat izan zen bertsoarena”. Gau eskolak martxan ziren, eta Santutxuko bertso eskolak bertan izan zuen sorrera. Goierriko bertso eskola ere euskalgintzaren aldeko ekintzak bultzatzen zituen Argi Berri elkartearen inguruan sortu zen.

Bertso eskola batzuk ikastolan sortu ziren. Esaterako, Zumaiako ikastola izan zen klase ordutan bertsolaritza lantzen lehena, 1975ean: Joanito Dorronsorok etxeko pianoa ikastolara eramane eta bertsolarien historia eta bertso zaharrak irakasten zituen. Beste bertso eskola asko Xabier Amurizak emandako hitzaldietatik sortu ziren. Horietan lehena Santutxuko bertsolari eskola izan zen. Amurizak aitortzen duenez, bere “esperimentuetarako kuia” izan zen: *Hitzaren Kirol Nazionala* eta *Hitzegi errimatu* idazten ari zen, eta Santutxun praktikan jarri zituen.

Mugimendua antolatzen

Bertso eskola bakoitzak bere herrira begira egin zuen sorreratik lan, horretarako sortu baitziren, herriko harrobia lantzeko. Bertso eskola bakoitza zen mundu bat eta independentzia osoa zuen; ordea, elkarrekin edo denentzat antolatu zituzten hainbat ekintza hasieratik, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Ikastolen Elkartearekin elkarlanean: ikastoletan bertsolaritza irakasteko egitasmoa, eskolarteko txapelketak, bertso irakaskuntzaz eman ziren ikastaroak eta materiala. Egitura honek ahalbidetu zuen bertso eskolen arteko sarea antolatzea.

Aipatutako ekintza kolektiboak prestatzeko, mugarri izan zen 1975ean Elgoibarren egin zen bilera. Zergatik ez eskolan bertsolaritza landu,

Iraultza

Bertsotan egiten ikasi egin zitekeela, horra Amurizaren planteamendu iraultzailea. Eta iraultza denetan ezinbestekoa dena, bere garaian oso kritikatu eta gaitzetsia ere izan zen. Teologia bezalako karrera luzea ikasten ari zenak ikusten zituen mila alor nola teorizatu eta ikasirakats zitezkeen, baita arte alorrekoak ere. Zergatik ezingo zen, bada, bertsoa aztertuz ikasi-irakatsi? Bestalde, Gabriel Arestik ere izan zuela planteamendu honetan eragina kontatu digu: “Aresti euskaldun berria zen, eta berak esaten zuen: Bada nik



Xabier Amurizak 1980. urtean irabazitako txapelak autoritatea eman zion bere teoriari.

demonstratuko dut bertsolaritza ikasi daitekeela. Bertso asko idatzi zituen, gainera bertsoaren sen osoz, maila handikoak”. Amurizak, seminariotik atera berritan, Bilboko Arriaga antzoki ondoan zegoen Euskaltzaindian ezagutu zuen Aresti. Poetak Basarriekin izan zituen polemikak gertutik jarraitu zituen, tartean euskara batua eta bertsoan ikasi-ez ikastearena.

Amurizak bere teoriak plazaratu baino lehen, Almen bertso eskola martxan zegoen jada. Bertako irakasleek ere entzun zituzten hainbat bertsolariengandik gehiegi animatuko ez zituzten hitzak. Goikoleak kontatzen duenez, Lasartek hau esan zien Apotzaga auzora bertsoetara joan zen batean, “Hor ari zarete zuek eskolan, baina, hori berezkoa behar da, berezkoa”. Goikoleak ez du iritzi aldatu, ordea: “Lasartek berak eduki balu bertsoan egiteko eskola, oraindik hobe izango zen!”. Xalbadorrek ere gauza bera esan omen zien, berezkorik ez duenarekin alferrik ari zirela.

Amurizak 1981ean hasita hainbat ikastaro eman zituen makina bat herritan, bere teoria eta materiala sozializatuz. Ikastaroko lehen egunean beti galdera bera sortzen zela azaldu du: bertsoan ikastea posible ote zen, horretarako jaio egin behar zela... Amurizak arrazoi ematen zien hasteko, baietz, jaio egin beharra zegoela, eta ikastaro horretan zeuden denek, behintzat, baldintza hori betetzen zutela, jaio izanarena, alegia. Ondoren debate antzu hori moztzen zuen, esanaz, bertsoan ezin zitekeela ikasi garbi zeukana libre zela hurrengo klasera ez joateko. Baina zalantza izpirik zuenak hobe zuela, badaezpada ere, hurrengo klasera joatea, ez zedin gertatu bere ikaskide denek bertsoan ikasi izana, norbera klasera joan ez zen bitartean.

“Bertso eskola martxan hasita ere, bertsoan ikasi ote zitekeenaz jende askok duda handiak izan genituen urte askotan”, aitortzen du, adibidez, Hernaniko irakasle Juanjo Uriak. Baina bertso eskola kalterako ez zela eta ikasleek bertsolaritza jakintza orokorra behintzat hartuko zutela ikusita ekin zioten lantzeari.



AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Lehen bertso eskolak

1974-1983 urte artean sortu ziren lehen bertso eskolak. Dozenatik gora ziren: Almen (Leintz bailara, Gipuzkoa, 1974), Santutxu (Bilbo, 1979-1980), Algorta (Bizkaia, 1980), Hernani (Gipuzkoa, 1981), Oiartzun (Gipuzkoa, 1981), Mungia (Bizkaia, 1981), Gasteiz (1982), Aiara (Araba, 1982), Bergara (Gipuzkoa, 1982), Tolosa (Gipuzkoa, 1982), Angelu (Lapurdi, 1982), Uztaritze (Lapurdi, 1982), Goierri (Ordizia, Gipuzkoa, 1982), eta Oñati (Gipuzkoa, 1983). Argazkian, Gasteizkoa.

XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA



gure kultura eta poesiaren zati den heinean? Patxi Goikoleak eta Abel Muniategi bertsolariak horixe planteatu zioten Ikastolen Elkarteari. Bileran hartatik zera du gogoan Goikoleak: “denak isilik geratu ziren”. Hilabetera berriro elkartzekotan geratu ziren. Etxerakoan ez zihoan lasai Goikolea, eta Muniategiri esan zion: “Ez dugu ondo azaldu, edo ez dakit, derrotatuta nator!”. Muniategik zuhur erantzun zion: “Itxoin, itxoin, horrek heltzeko denbora behar du”. Hilabetera bigarren bileran batu, eta a zer poza Goikolearena bertsolaritzako ordezkariak handiarekin topo egin zuten: Paulo Agirre (Gipuzkoako Ikastolen Elkartea), Xabier Amuriza, Imanol Lazkano, Anjel Ugarteburu (Elgoibarko irakaslea) eta Joanito Dorronsoro (Zumaiako irakaslea). “Imanol Murua zegoen garai hartan Gipuzkoako Foru Aldundian, eta hark ere norbait bidali zuen bilerara” gaineratu du Goikoleak.

Bertsolaritza irakaskuntzan landu behar zela erabaki zen bertan, eta honako irakasleak aritu ziren: Gipuzkoan Mikel Mendizabal, Bizkaian Jon Lopategi, Araban Abel Enbeita, eta Nafarroan Lontxo Aburuza. Iparraldean, urte batzuk geroago, Xanti Iparragirre, Ernest Alkat eta Jexux Arzallus arituko ziren.

Bilera berean sortu zen Eskolarteko Bertsolari Txapelketa egiteko ideia. Eta baita *Bertsotan I* eta *II* liburuak eta zinta kaleratzeko proposamena ere. Joanito Dorronsorok 1979an fundizioa utzia zuen osasun arazoengatik, eta bera jarri zen antologia hori egiten burubelarri.

Bertso eskolen egituraketa

Bertso eskolek sorreratik lana serio antolatu zuten eta eguneroko jarraipena egin zioten. Besteak beste Juanjo Uriak eta Patxi Goikoleak oraindik artxibatuta dituzte lehen urteetako programazioak: klasea nola antolatu, zer ariketa egin... Joxe Mari Barandiaranek garajejan Goierriko bertsolaritzari buruzko artxiborik osoena du, bertako saioen grabazio, kartel, balorazio eta argazkiak biltzen dituena, baita bertso eskolan hartutako erabaki denen aktak, ikasleen izenak

Goierriko bertso eskolaren ospakizunak

Hiru ardatz ditu urte osoko egitasmoak: Batetik, bertso eskolaren 25 urteko historia biltzen duen liburuak argitaratuko dute. Lehen ikasleetakoa izan zen Igor Egurenak idatziko du. Bestetik, Goierri Telebistarekin elkarlanean, Atera! lehiaketa egingo dute asteazkenero, non eskolaumeek euren hizkuntza trebetasunak neurtuko dituzten. Bertsozaleen herri arteko txapelketa da hirugarren ekintza nagusia. Kanporaketak ekainean hasiko dira, eta elkartean jokatu. Finala, beriz, uztailean 27an Ordiziko Tximista sagardotegian izango da.

eta gainerakoak ere. Almen bertso eskolak beriz, bertsolariak ateratzeko 10 urteko plana diseinatu zuen, garai hartan enpresetan egiten zituazten antzera. Etorkizun ikuspegia eta planifikaziorik ez zuten falta. Legalki, Santutxuko bertsolari eskolak sortu zuen 1983an bertso munduko lehenengoetako elkarte juridikoa: Bizkaiko Bertsolari Ikasleen Elkartea (BBIE). Gobernu zibilak ekintza asko debekatzen zituen garaian, saio mordoxka antolatzeko aukera eman zien horrek. Bizkaiko Bertsozale Elkartea sortu zenean desagertu zen.

Goierrikoa da behar bada, organigrama konplexuena zuen bertso eskola. 1982an bertso eskolaren ardura izango zuen taldea aukeratu zuten: Argi Berri elkarteak batzordetik Juan Mari Garmendiak izango zuen ardura. Ikastetxeetako irakasleen artean Santi Garmendia, Arantxa Sarriegi eta Jesus Goikoetxeak. Bertsolarietan Mikel Mendizabal, Eusebio Igartzabal eta Iñaki Muruak. Eta Argi Berri elkarteak bazkideetatik, Pedro Irastorza eta Joxe Mari Barandiaranek. Argi Berriko ordezkariak arduratzen ziren udaleko harremanez eta haurren garraioaz. Ikastetxeetako ordezkariak ikasleak bertso eskolara bidertzeaz, eta bertsolariak irakasleak lotzeaz eta klaseko metodologiarekin.

Baliabideen aldetik, ikastoletako azpiegiturak izan zituzten eskura hasierako bertso eskola batzuek. Esaterako Zumaiako bertso eskolak, non bertako irakasle Joanito Dorronsorok egun erdiko dedikazioa zuen bertso eskolak emateko. Udalen laguntza ere izan zuten beste batzuek, esaterako Goierrikoak. Hauek izan ziren lehen urtean udalei eskatutako baliabideak: Ordiziako Barrera Jauregian gela bat; gelarako altzari, irrati-kasete, liburu eta gainerakoak; eta irakasleei ordaintzeko orduko 1.000 pezeta (40 libera). Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere jaso zuten bertso eskola batzuek, Hernanikoak 1986tik 1989ra jaso zuela behintzat badakigu. Eta autofinantzazio bideak ere bilatu zituzten. Esaterako, Santutxuko bertso eskolakoek idatzitako artikuluan kontatzen dutenez (*Jakin*, 17/18 aleak): “[Saioak

Plazaratzea



Bertsotan egiten ikasteak ekarri zuen klasez kanpo, jendaurrean kantatzeko beharra. Bertso eskolek hasieratik landu zuten eremu hau. Plazara atera aurretik klasean ikasi behar ziren kantakera, jendaurreko jarrerak... Horregatik da bertso eskolaren ikurretakoa mikroa imitatzen duen erratz kirtena. Hasieran ikasitako bertsoak kantatzen zituzten jendaurrean, hori bai, bat-bateko itxurak eginaz. Joxerra Etxebarriak kontatzen du zer estuasun ekarri zizkion jendaurrean botatako lehen bertsoak: Santutxun egindako saio batean izan zen, euskararen astearen barruan. Bertso eskolako 10 lagun aritu ziren, Jon Enbeita, Jon Lopategi eta Xabier Amurizarekin, 400 ikusleren aurrean. Hasi zen Etxebarria prestatutako agurra botatzen: “-AIA zuen errima, eta hirugarren puntuan blokeatuta geratu nintzen. Lopategik ondotik ahopeka bota zidan ‘Bizkaia, Bizkaia!’ eta zelan edo halan borobildu nuen bertsoak hark esandako errimarekin”.

egindako] leku guztietan zerbait kobratu dugularik (ez guk eskatu dugulako)... Esan beharra dago, diru hori praktiketako afariak egiten gastatu dugula”. Goierriko bertso eskolak oraindik ere Santio festetan jartzen duen tonbola hartu zuen autofinanziazio iturri.

Metodologia: taldea, almazena, testuingurua

Patxi Goikolea Almen bertso eskolako irakasleak argi du: “Inportanteena ekipoa da. Afaria dela edo bestea dela, beti elkarrekin dabilzala. Elkarren pozera gehiago ikasten da, ‘honek hori esateko zer egin du?’ aztertzen dute”. Gaur ere, orduko ikasleak maiz biltzen dira, eta hori da Goikolearentzat frogarik argiena. Taldea egiteko beharrezkoak ziren klasez kanpoko ekintzak. Joanjo Uriak ere Hernaniko Langile ikastolako bertso eskolan taldea zenbat landu zuenaren seinale, 1986ko diru balantzea dugu: eginiko gastu bakarrak, kontzeptu hauen pean egin ziren: “Olazarren egun pasa eta bazkaria, 10.000 pezeta”, (400 libera) “Alkizako irteera, 5.000 pezeta” (200 libera) eta “Sagardotegia, 5.000 pezeta”. Hurrengo bi urtetako diru balantzean ere,

teko zer egin du?’ aztertzen dute”. Gaur ere, orduko ikasleak maiz biltzen dira, eta hori da Goikolearentzat frogarik argiena. Taldea egiteko beharrezkoak ziren klasez kanpoko ekintzak. Joanjo Uriak ere Hernaniko Langile ikastolako bertso eskolan taldea zenbat landu zuenaren seinale, 1986ko diru balantzea dugu: eginiko gastu bakarrak, kontzeptu hauen pean egin ziren: “Olazarren egun pasa eta bazkaria, 10.000 pezeta”, (400 libera) “Alkizako irteera, 5.000 pezeta” (200 libera) eta “Sagardotegia, 5.000 pezeta”. Hurrengo bi urtetako diru balantzean ere,

Historia, ondarea eta oroimena

Ikastaro telematiko eta praktikoak

- **1936ko gerra. Oroimena eta Ahanztura Hego Euskal Herrian**
125 ordu.
Teoria on-line. Praktikak Indusketa Arkeologikoekin. Narrazio digitalak.
- **Nafarroako Erresumaren Historia eta Gazteluak**
230 ordu.
Teoria on-line. Praktikak Indusketa Arkeologikoekin.
- **Kultur Ondarearen Azterketa**
50 ordu.
UEUko Udako Ikastaroen barne.
Saio praktikoak Or baitzetan.

matrikula:

- martxoaren 19tik
apirilaren 29ra (1936ko gerra)
maiatzaren 29ra (Nafarroa)
ekainaren 29ra (Ondarea)

• www.ueu.org

antolatzaileak:





Lehen Eskolarteko Txapelketa: 1981

Patxi Goikoleak parte-hartze ikaragarriak sortutako anabasa du gogoan: “40 hurrek eman zuten izena bat-batean egiteko. Batzuk inoiz kantatu gabeak”. Almenekoek, berriz, ordurako sei urte zeramatzen bertso eskolan. Gainera, txapelketak motibatuta 4 hilabete falta zirela, sarriago biltzen ziren prestatzeko. Jendaurrean ere buruz ikasitako bertsoekin saioak eginda zeuden. Egoera xebleak aipatu ditu Goikoleak: “Gure bat jartzen zuten behin ere egin gabeko batekin puntuka, eta gureak puntua jarri eta besteak beste errima batekin erantzun... Gureak zer egin behar zuen? Haren errimarekin jarraitu...”. Bistan zena, ia sari guztiak Almenek eraman zituen. Txikien mailan Jon Iñaki Izarzelai (Almen) izan zen txapelduna, eta Josu Garate (Zumaia) txapeldunordea. Handien mailan, berriz, Jon Sarasuak ez zion uko egin txapela janzteari. Baina bigarren urterako etorriko zen buelta.

“sagardotegia” da errepikatzen den kontzeptu nagusia.

Bertso eskolen pedagogiaren oinarria “almazena bertsoz betetzea” izan zela kontatzen du Dorronsorok. 1975eko Elgoibarko bileran planteatu zen galdera: Ikasleei egokitutako bertso berriak sortu behar ziren, edo historikoak irakatsi? Bigarrenaren aldeko hautua egin zen, Amurizak arrazoitu duenez: “Nik umetan bertso zahar pila ikasi nituen, zer esaten nuen ez banekien ere. Eta hori zerbaitengatik da. Bertso horiek denboraren froga gaituzten dute, berriek ez”. Bertso eskola denek bertso zahar mordoa ikastea izan zuten oinarri. Hala ere, hau ez zegoen berriak ikastearekin kontraesanean. Almen bertso eskolan adibidez, plazako bat-bateko bertsoak zintan grabatu, transkribatu eta klasean ikasten zituzten, Goikoleak kontatzen duenez: “Lasarteri omenaldia egin zioten Leitzañan, igandez. Astelehenean nik eraman paperean, eta ‘datorren larunbaterako hauek ikasi’ agindu genien. Egunean bertan hiru bertsoak ikasita geratu ziren”. Haurrentzat propio egindako bertsoak ere ematen zizkieten, hauek buruz ikasi eta jendaurreko saioak egiteko.

Bertsoa bere inguru naturalean lantzea izan zen sorrerako bertso eskola batzuen beste berezitasun bat. Santutxuko bertso eskolakoak, klasea bukatzean tabernara joaten ziren pintxo batzuk hartu eta bat-bateko jardunarekin jarraituz. Berehala jabetu ziren taberna giroan bertsoaren errazago egiten denaz, eta “praktika afariak” antolatzen hasi ziren Gernikesa tabernan, hiruhilero. Almen bertso eskolak, bertsoaren errazteko egiten zuten 10 ikasle inguruko taldearekin, honela antolatzen zituen ostiral iluntzeko klaseak: Eskoriatzako Apotzaga auzoko Hauzo-Etxe elkartean biltzen ziren, afa-lostean, 20:00ak aldera. Lehenik pilotan egiten zuten, eta berotzean jarri mahaian, atera sagardoa eta tortila batzuk eta bertsoan hasten ziren.

1981ean Amurizak argitaratutako *Hitzaren Kirol nazionala, Hitzegi errimatua* eta *Zu ere bertsolari*, liburua, eta bertsolariaren antologia biltzen zuten Joanito Dorronsororen *Bertsotan I (1789-1936)* eta

Bertsotan II (1936-1980) izan ziren bertso eskolentzat material estimatuena. Hauxe gain, irakasle askok euren materiala sortu zuten, bertsolarien biografia, anekdota eta bertsoen aukeraketa eginez. Esan liteke bertsoaren triapak aztertzeo teoriak orduan papereratu eta zabaldu zirela, ikastaroen bidez, eta geroztik ez dela maila horretan aldaketa handirik eman.

Hauek ere lehen bertso eskoletan aritu ziren

Ikasle denek izenak ezin esango ditugu. Hemen dituzue prezisamente bertso kontuengatik ezagun egin ez diren batzuk: Felix Iñurrategi, Maite Aristegi, Xanti eta Goio Jaka, Karmelo Landa, Iñaki Antiguedad... Kike Amonarriz Tolosako bertso eskola sortzen aritu zen.

Eskolako bertsolariak: teoria konfirmatu zen

Bertso eskola batzuen hasierako helburua euskara maila hobetzea zen. Beste batzuen bertsozale-tzea, eta bazen bertsolariak ateratzearen aukerari aterik ixten ez zionik ere. Baina hasierako urteetan ikusi zituzten aurrerapenak helburu zailagoak jartzera eraman zituzten hainbat bertso eskoletako irakasleak. Hauen artean dago Almen bertso eskola, zeinak 1978-1988 epealdirako bertsolariak ateratzea jarri zuen helburu. Eta berdinean egin zuten Santutxuko bertsolari eskolak ere. Hala kontatzen du Joxerra Etxebarriak: “Guk irakaskuntzan sinesten genuen, eta erronka moduan planteatu genuen: gu bertsolari izango gara. Guretzat ilusio bat zen frogatzea hori posible zela. Euskaldun berriak ere aritu ziren gure bertso eskolan, eta erakutsi genuen eurek ere ikas dezaketela bertsoaren”.

Bi bertso eskola hauek euren helburua beteta ikusi zuten, besteak beste Jon eta Aitor Sarasua, Arantzazu Loidi eta Ainhoa Agirreazaldegiren bezalako bertsolariak atera baitziren Almenetik. Eta Santutxuko 10 ikasle parte hartu zuten 1982ko Euskal Herriko Txapelketan, hauetatik 4 aurrera pasaz. Etxebarriaren hitzetan, “horrek erakutsi zuen eskolak funtzionatu egiten zuela, eta guretzat hori izan zen garrantzitsua”. Helburutzat bertsolariak ateratzea jarri ez zuten beste eskola batzuek ere ikusi dute bertan bertsolariak hazitzen, Amurizaren teoria konfirmatzen dutenak. ■

<http://www.argia.com/blokak/garalea>

helbidean, bertso eskolen sortzaileei egindako elkarrizketak bideoan, historia, metodologia eta Amurizaren iraultzari buruzko testu osoa, xehetasunak eta garai hartako bideo zein argazkiak ikusgai.